

Joseba Gabilondo (2007) *Nazioaren hondarrak*. EHU.

AMAIA ALVAREZ URIA

Euskal literatura garaikideari begiratzeko beste modu baten aurrean gaude. Hau da Joseba Gabilondoren lana eskuartean daukagunean ondorioztatzen duguna. Begirada berritzailea, ausarta, zirikatzailea... adjektiboak gure ikuspuntu edo lekunearen arabera izango dira, jakina. Batzuentzat probokatzaileria eta polemikoa izango da, eta beste batzuentzat euskal literaturak behar zuen aire berria.

Beste begirada bat diogu, Ipar Amerikatik datorrelako eta bertako akademiak darabiltzan gai, parametro eta tresnak euskal literatura garaikidera ekarri dituelako: “Beste”aren begirada jorratzen duten korrante eta joera postmodernoetatik edaten du lan honen egileak: postestruturalismoa, postmarxismoa, psikoanalisi, feminismoa, postkolonialismoa, ikasketa kulturalak, eta gay eta lesbianen teoriak, hain zuzen.

Proposamen kritiko propioa dakar: *Euskal literatura postnazionala* deiturikoa. Hau definitzerakoan hurrengo hau esaten du: *euskaldun edo basko guztiek beren hizkuntza guztietan idatzitako literaturak* (14). Proposamen honen helburua: *hetereogeneotasun linguistiko eta nazionala tresna edo zuzentzaile kritiko bezala erabiltzea nazio-estatu inperialistaren krisia eta historia berpentsatzeko* (15), eta hau lortzeko bidea *dimentsio geopolitikoa (postnazionala) eta biopolitikoa (sexua, arraza, generoa, klasea, ...) batzea* (15).

J. M. Lasagabasterren *Euskalerriko giro literarioaren* egitasmoa aipatzen du bere pentsamendu kritikoaren oinarri gisa. Lasagabasterrek zioen euskaraz soilik ez zela idazten Euskal Herrian eta beste hizkuntzetan idatzitakoak ere kontuan hartu behar zirela. Hori eginez lortuko genuela Euskal Herriko benetako errealitate kulturalaren argazkia, bere hitzetan esanda, *Euskalerriko giro literarioa*.

Bai Lasagabasterrek, bai Gabilondok egiten dutena irizpide linguistikoetatik soziologikoetara salto egitea da. Hau egiteak aldeko eta kontrako osagaiak baditu ere, euskal literaturak duen markoa kontuan hartuta ez dakit bideragarria izango litzatekeen, besteak beste, Euskal Herrian hitz egiten diren hizkuntzak ez daudelako egoera berean, ez dutelako estatus eta baliabide berak eta irakurleen tipologiak eta kopurua ere ezin direlako konparatu.

Euskal literaturaren historiari buruz hitz egiten duenean egiten du ekarpenik handiena gure ustez. Euskaraz idatzitako literatura aztertzen du batez ere eta bere begirada berriarekin gaurkotzen saiatu, eta hau da lan honetako ekarpenik freskoena. Inflazio eta gehiegikeria historikoa aipatzen ditu orain arte egindako historiak kritikatzeko. Inflazio historikoari dagokionez, euskal literaturaren historia gehiegi idatzi direla dio.

Guk azken 150 urteetan idatzitako historien artean 36 lan eta 32 egile kontatu ditugu Gabilondorena azkena izanik (1960tik gaur arte idatzitakoak dira hauetatik gehienak: 32; beraz, estadistikoki, esan genezake, urte eta erdiro agertu dela azken aldi honetan historia bat). Euskal

literaturaren historia aipatuena eta ezagunena Mitxelena (1960), Villasante (1961), Sarasola (1976), Mujika (1979), Onaindia (1972-1990), Juaristi (1987), Kortazar (1990), Torrealda (1997), Urkizu (2000) eta Aldekoaren (2004) lanak dira.

Gabilondoren ustez irizpide linguistikoetan oinarritu dira guzti-guztiak, ikuspuntu filologiko batetik egin dira, eta horrek egitura eta filosofia aldetik joera bakarrean kokatu ditu testuok beste hurbilpen batzuk kontuan hartu gabe eta literatura erakusteko eta irakasteko alde bakar bat agertuz. Gehiegikeria historikoarena honekin lotuta legoke. Muturreko objektibazioa gertatzen da askotan historia idaztean eta horrek literatura pobretzeaz gain pasio eza eta izaera otzana dakartza. Honi guztiari kritika egiten dio idazleak, beste eredu/ikuspuntu/hurbilpen batzuen beharra azpimarratuz eta berea emanez.

Euskal literatura gaurkotu nahian globalizazioa, gutxiengo/gehiengo literaturak eta kultura aniztasuna gaien inguruan dihardu. Orain arteko testuingurua edo markoa Euskal Herria, Espainia edota Frantzia izan dira gurean (eta gehienak jota, Europa). Gabilondok ikuskera horrekin apurto nahi du eta testuinguru berria proposatu: globalizazioa.

“Gutxiengo” eta “gehiengo” literatura izendapenak ere zaharkituta daudela dio gaur egungo mundu “post-” honetan. Bernardo Atxaga eta *Obabakoak* hartzen ditu mugarriztat eta hauen izaera bikoitzari buruz hitz egiten du: “gutxiengo” dira baina aldi berean “global” (hemen daukagu XXI. mendean kultura mailan aldarrikatzen den global/lokal harremana).

*Obabakoak* argitaratu arte, edo bestela esanda, garai modernoan, nortasun nazionalak dira lehentasun, Gabilondoren esanetan. *Obabakoak* eta gero aro berria etorri zen eta honekin batera postmodernismoa: subjektu eraketa berriak ahalbidetu zituen eta identitate anitzak azaleratu (nortasunaren ezaugarri bakarra ez delako izaera nazionala), kultura merkataria eta ordura arte marjinalak ziren literaturen komertzializazioa: besteak beste, genero literatura (detektibe nobelak, zientzia-fikzioa, bidaia liburuak), hirugarren munduko literatura, emakumeek idatzitako lanak, *queer* literatura eta hibridazioak.

Euskal literaturaren historiari egiten dion berrikusketara bueltatuz esan behar dugu kronologia berria aurkitu dezakegula liburu honetan:

1. literatura nazionala (1898-1992)
2. literatura postnazionala (1992- ...)

Euskal literaturaren historia nazionalen XX. mendearen hasieran Finlandian idatzitako olerki nazionalista eredu hartuta euskal alegoria nazionalaren bila ibili ziren mende horretan zehar: Lizardi, Aresti, Oteiza eta Atxaga dira azpimarratzen dituen saioak. Gero eleberri modernoak idatzi nahi izan zuten: Saizarbitoriak lortu zuen horrekin kanoniko bihurtzea. Bitartean errealismo magikoa jorratzen zuten idazleak zeuden beste talde batean eta eremu literarioa osatu zuten idazle bakoitzak bere lekua hartuz kanonean eta kanonetik kanpo.

Literatura postnazionalen eremu literarioaren osaera gertatu zen (kanonaren sorrera zentroan Saizarbitoria eta Atxaga zeudela, instituzio publikoak eta merkatuaren finkatze eta

sendotzea Euskal Herriko hegoaldean), eta euskal literaturaren azken aldiko banaketa garrantzitsua: kanonikoa alde batetik (alegoria nazionala) eta komertziala bestetik (alternatibak: haur eta gazte, euskaldunberri, ...).

Europako goi eta behe mailako literaturekin konparatzen du egileak. Bourdieuren hitzetan, ordea, klasikoak eta *best-sellerak* lirateke bi talde hauek (epe luzeko eta epe laburreko *best-sellerak*, alegia). Europako euskal kritikagintzak honi buruz hitz egin duenean erabili izan dituen berbak, aldiz, euskal gatazka, memoria eta intimismoa izan dira, beste batzuren artean. Eta heldu / haur eta gazteen arteko mugak oso zurrun markatu dituzte. Euskaldunberrientzat idatzitakoak eta erdaretan idatzitakoak aipatu ere ez.

Emakume idazleen lanak daude banaketa honen bigarren taldearen barruan eta aitzindariak dira Gabilondoren iritzian literatura postnazionalen: marjinalak izan ziren hasieran, erbestekoak gero, eta komertzialak azkenak. Laburbilduz, euskal literatura postnazionalak Gabilondoren arabera hiru taldetan bana genitzake lanen ezaugarriei begira: fikzioaren politizazioa, politikaren fikziozkotzea eta desiraren merkaturatzea.

Maila teorikoan oso ekarpen interesgarri eta berritzaileak daude lan honetan, hala ere, maila praktikora pasatzean zailtasunak aurkitzen ditugu proposamen batzuk aurrera ateratzeko egungo euskal literaturan. Lasagabasterrek bere garaian Paristik *Nouveau Roman*aren ikuskera berria ekarri zuen bezala Gabilondok Ipar Amerikako azken joera kritikoak ekarri dizkigu *Nazioaren hondarrak* lanarekin, eta hori oso eskertzekoa da. Batez ere, begiratzeko duen modu desberdin eta “beste”a dela eta.

Horrelako lan interesgarri batek duen arriskua da erantzun negatiboa izatea, irakurleek aintzat ez hartzea, urrun ikustea bertan aurkeztutakoa, azken finean. Euskal literatura modernismoa eta postmodernismoaren artean dagoenean oraindik, (eta lehia bizian gainera), modernismoa ukatu eta salatu eta postmodernismoa aldarrikatu eta goraiatzaren dituelako euskal literaturako irakurlea horretara ohituta ez dagoenean.

Beraz, zergatik irakurri behar dugu liburu hau? Gabilondok esaten duen bezala, helburua hurrengo hau delako: *Literatur kritika abiapuntu bihurtu, eztabaida politiko, filosofiko, estetiko eta sozialak suspertzeko. Horrela, izpiritu kritikoa sustatuz kultura berrituko dugu.*